



LEGORRETA UDALA
(GIPUZKOA)

2018

UDAKO UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK KONTRATATZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua Legorretako Udalak antolatutako udako udaleku irekietarako begiraleen aldi baterako lan kontratazioa egiteko deialdia arautzea da.

Kontratuaren iraupena, 2018ko ekainaren 25etik uztailaren 27ra, biak barne.

Lanaldia goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00era izango da, astelehenetik ostiralera, nahiz eta Udalak nahi duen erara aldatu edo antolatu ahal izango duen ordutegi hori.

Kontratatu den begirale kopuruari dagokionez, udalekuan izena ematen duten haurren arabera izango da kopuru hori. Ondorioz, Udalak erabakiko du kontratatuko den begiraleen kopurua.

Ordainketa hilean 937,38 eurokoa izango da (C2, 14 destinoa eta 12 ordainketa maila orokorra).

2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo bestela Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Aurkez daitezke, halaber, Europako Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, 21 urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.

2. 16 urte beteta edukitzea eta betebeharrezko jubilaziorako adina beteta ez edukitzea.

3. Eskola-graduatuaren jabe izatea.

4. Euskaraz ulertu eta hitz egitea. Beharrezkoa ikusiz gero, izangaiak euskara ulertu eta hitz egiteko gai dela frogatu beharko du epaimahaiaren aurrean.

5. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

6. Inolako administrazio publikoren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espedita bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

3. Eskabideak aurkeztea.

Epea: Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 21ean hasiko da, eta azken eguna maiatzaren 30a izango da.

Lekua: Legorretako Udaleko erregistroa.

Halaber, eskaerak azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan zehaztutako eran aurkeztu ahalko dira.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

— Eskaera orria beteta.

— NANaren fotokopia.

— Eskatzen den tituluaren fotokopia.

— Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituen agirien kopiak.

Aurkezten diren dokumentu guztiak originalak edo behar bezala konpultsatuak izan beharko dute.

Aurkeztutako dokumentuak ikusirik, organo eskudunak izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori udaletxeko iragarki taulan jarriko da bi laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bilakatuko da.

5. Kalifikazio-epaimahaia.

Jesus M. Arrizabalaga Etxeberria, Legorretako udaleko funtzionarioa, lehendakaria.

Ana Rosa Agirre Garmendia, Legorretako udaleko funtzionarioa.

Iñaki Elizegi Mendizabal, Legorretako udaleko funtzionarioa, idazkaria.

Idazkaria epaimahaiko kide izango da.



LEGORRETA KO UDALA
(GIPUZKOA)

6. Hautaketa prozesua.

6.1. Lehiaketa bidez arautuko da hautaketa prozesua, eta honako meritu hauek baloratuko dira. Hautagai bakoitzeko puntuazio total bat aterako da, eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.

* Aisialdiko titulazioa:

Aisialdiko zuzendari agiria.....10 puntu.

Aisialdiko begirale agiria.....6 puntu.

Inolaz ere ez dira bi agiriak baloratuko. Ondorioz, bi agiriak aurkeztuko balira, puntuaketa handiena ematen duen agiria baloratuko da soilik.

* Heziketarekin harremana duten ikasketak (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza, Haur Hezkuntza, Kirol Monitoritza, Gizarte Integrazioa edota Gizarte eta Kultur Animazioa):

Gradua/ Lizentziatura..... 4 puntu.

Diplomatura.....3 puntu.

Heziketa Zikloak.....2 puntu.

Gehienez ere 10 puntu lortu ahalko dira atal honetan.

(Ikasketa berdinean lizentziatura titulua den kasuan ez da diplomaturaren punturik batuko)

(Ikasketa desberdinetako graduak, lizentziaturak, diplomaturak edota heziketa zikloak batuko dira)

* Prestakuntza-ikastaroak: aisialdiko jarduerekin lotura duten ikastaroak: 10 orduetik beherako ikastaroak ez dira kontuan hartuko

10 orduko ikastaro bakoitzarengatik (gehienez 2 puntu).....0,5 puntu.

* Euskara maila:

EGA titulua edo baliokidea izatea.....3 puntu.

* Lan-esperientzia: Lan-esperientzia gehienez 2 punturekin baloratuko da.

(Lan-esperientzia lan-kontratuak edota gizarte segurantzaren edo administrazio kontratatzailearen ziurtagirien bidez egiaztatuko da)

— Ludoteka batean hezitzaile lanak egiteagatik: sei (6) hilabete bakoitzeko..... 0,50 puntu.
(sei hilabete baino gutxiagoko epeak ez dira kontuan hartuko).

— Udaleku itxietan zuzendari bezala esperientzia izatea: 15 eguneko.....0,30 puntu.

— Udaleku irekietan zuzendari bezala esperientzia izatea: 15 eguneko..... 0,25 puntu.

— Udaleku itxietan begirale bezala esperientzia izatea: 15 eguneko..... 0,20 puntu.



LEGORRETAKO UDALA (GIPUZKOA)

- Udaleku irekietan begirale bezala esperientzia izatea: 15 eguneko..... 0,15 puntu.
- Aisialdi taldeetako partaidetzagatik, urte bakoitzeko (gehienez 1,5 puntu arte)..... 0,50 puntu.

* Lehen sorospen ziurtagiria edo titulua:

-Lehen sorospenetarako ziurtagiria edo titulua izateagatik.....3 puntu.

6.2. Egokitasuna: Aurreko lehiaketa prozeduran puntuazio altuena duten zortzi izangaien artean, epaimahaiak izangaien gaitasun profesionala neurtzeko elkarrizketa edota test psikoteknikoak egingo ditu.

7. Izangaien zerrenda.

Egokitasuna zehazten duen txostenaren arabera, lanpostuarekiko egokitasunaren arabera antolatutako izangai zerrenda argitaratuko du epaimahaiak udal iragarki tauletan, eta izangairik onenak gertatu direnak izendatzea proposatuko du.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira hurrenez hurren:

1. Zuzendari edo begirale titulua izatea.
2. Heziketarekin harremana duten ikasketak.
3. Lehen sorospen ziurtagiria edo titulua.
4. Prestakuntza-ikastaroak: aisialdiko jarduerekin lotura duten ikastaroak.
5. 3 HE/EGA edo baliokidearen jabe izatea.
6. Lan-esperientzia.

Berdinketak desegiteko aurreko irizpideak erabilita ere berdinketak jarraituko balu, zozketa bidez desegingo da berdinketa.

Batuketan emaitzen kontra erreklamazioak tartekatu ahalko dira, bi laneguneko epean, emaitzok oinarri hauetan aipatu moduan argitaratuko direlarik.

Kontratua izateko, ezinbesteko baldintza izango da udalak bere kasuan antolatutako prestaketa saio edo bileretara bertaratzea.



LEGORRETA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Honen aurka berraztertze ko errekurts oia jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, administrazioarekiko auzi errekurts oaren aurretik, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, edo zuzenean aurka egin ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, egoki iritzitako bestelakoez aparte.

Legorretan, 2018ko maiatzaren 15ean.

Alkatea,

Zelai Amenabarro Goikoetxea